

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak beste lau kasutara zabaldu du gizarteratzeko errenta jasotzeko aukera 24 hilabeteak agortu zituzten familia-unitateentzat

Alli kontseilariak gizarte-erakundeekin adostutako ekimen hori aurkeztu du eta horretarako 800.000 euro bideratuko da

Lunes, 19 de noviembre de 2012

Nafarroako Gobernuak berehala zabalduko die gizarteratzeko errenta, jasotzeko 24 hilabeteak agortu arren, beren kargu 12 urtetik beharreko adingabeak, gaixo larriak edo ezinduak dituzten familia-unitateei; gizarte-etxeetarako laguntza-programetan daudenei; edo genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei.



Erdian, Alli kontseilaria eta Oto, gizarteratzeko lan-taldeko bileran.

Hala eman du ezagutzera gaur goizean prentsurrekoan Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Allik gizarteratzeko lan-taldearen bilkuraren amaieran, Departamentuko ordezkarienez nahiz sektore horretako gizarte-erakundeek osatuta dagoena.

Allik egindako agerraldian, harekin izan dira ere Iruñeko Caritas-ko Angel Iriarte eta Nafarroako Gurutze Gorriko Joaquín Mencos, eta kontseilariak aipatu duenez, ekimen horrek 800.000 euroko kostua du eta azpimarratu du Nafarroako Gobernuaren asmoa dela "gizarte-erakunde guztiak lan egitea irtenbideak elkarrekin topatzeko".

"Errealismo-ariketa"

Gizarte Politiken kontseilariaren aburuz, Nafarroako Gobernuarentzat "erabateko lehentasuna du biztanleen sektore batek pairatzen duen egoera konplikatu guztiak arintzea". Allik onartu du gizarteratzeko errenta-zabaltze horrek "ez dituela behar guztiak betetzen", baina, aitortu du, "sektore horretako erakunde gehienak ados daudela errealismo-ariketa egin behar dugula pentsatzean".

Aldiz, Iruñeko Caritas eta Nafarroako Gurutze Gorriko ordezkariak Alli kontseilariak aurkeztutako ekimenaren balorazio "positiboa" egin dute, bai eta Gizarte Politiken Departamentuak "gizarte-erakundeekin elkarrizketarako foro bat errekuperatu izanagatik ere".

Asteazken honetan, azaroak 21, ekimen hori Oinarrizko Gizarte

Zerbitzuen koordinazio-mahaira eramango da eta Nafarroako Gizarte Ongizateko Kontseiluaren aurrean aurkeztuko da azaroaren 27an.

Jasotzaileak kontratatzeko laguntzak

Gainera, Alli kontseilariak iragarri du datorren urtean Nafarroako Gobernuak laguntzak eskainiko dituela gizarte-erakundeek, enpresek eta toki-erakundeek gizarteratzeko 810 errenta-jasotzaile kontratatzen laguntzeko. Laguntza horri esker, aurten 488 pertsona kontratatu dira.

Gizarteratzeko lan-taldea

Gaur goizean, 09:00etan, Alli kontseilariak Iruñeko "Fuerte del Príncipe" Gazteen Egoitzaren buru izan da, gizarteratzeko lan-taldearen bilkuraren buru, eta gizarteratzeko errenta zabaltzeko proposamena aztertu da bertan.

Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Oto ere bertaratu den bilkura horretan, honako ordezkari hauek izan dira, halaber: [Nafarroako Enplegu Zerbitzua](#), Gizarte Kohesioko Mahai Sektoriala ([UGT](#), [CCOO](#) eta [CEN](#)), [Nafarroako Elikagaien Bankua](#); [Gaztelan Fundazioa](#); [Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa](#); [Iruñeko Caritas](#), [pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokaren Nafarroako sarea](#), eta [Nafarroako Gurutze Gorria](#).